



Kutxa didaktikoa Higienea

Higienea izeneko kutxak, XX. mende hasieran landa testuinguruan kokatutako norberaren eta etxearen higieనేarekin zerikusia duten objektuak biltzen ditu.

Zaldi-orrazia

Animaliak orraztu eta garbitzeko erreminta, normalean zaldiak eta behiak. Burdinazko xafla batez osatuta dago, zeinak zerra-hortz txikidun eta kamutsez egindako zortzi zerratxo dituen. Goiko aldean kirtena du.





Astingailua

Zume txirikordatutako tresna, artilezko burusiak eta koltxoiak aireztatzeke eta astintzeko erabilia.

Mahuka-erdiak

Kotoi zurizko oihalez egindako eskumutur luzeko pareak. Eskumuturrean botoitu eta ukondoaren gainetik lotzen dira, begizta edo goma batekin.

Arropa babesteko erabiltzen ziren, mahuka gainetik jarrita lan espezifikoak egiteko.



Lainoztagailua

Latorrizko tapa hariztatua duen andel txiki batez osatutako fumigatzeko tresna da, non urarekin nahastutako pozoi hautsa (DDT) isurtzen den. Andel horri aurrealdean zulatutako karkasa zilindriko bat gehitzen zaio, bertan nahasketa desinfektatzailea sartzen delarik. Barnealdetik, xiringa moduko burdinazko enbolo bat doa. Enboloa zurezko kirten batekin

amaitzen da, zeinarekin presioa eragiteko eta likidoa botatzeko bultzatzen den.

Listuontzia

Esmaltatutako latorrizko ontzi zuria, azpildura urdinarekin. Bi zati bereziak ditu: behekoa, zurezko heldulekua duen baldea da eta goikoa, inbutu formako plater moduko bat da, non espektorazioak edo okadak jasotzen diren. Erdiko irekidura bat du balbula gisa, zeinak etxean eta higienean erabiltzeko aukera ematen duen, edukia agerian utzi gabe. Iturriko urik ez zegoen gela batean konketa husteko ere erabiltzen zen.



Pixontzia

Alboko heldulekua duen toska zuriko ontzia, gorotza eta gernua egiteko erabiltzen zena, batez ere gaueko orduetan, komunera joatea, baldin bazegoen, arazo hotz eta deserosoa zenean.

Garbitzeko ohola, xaboi-pastilla eta eskuila

Ehun-gaiak garbitzeko tresnen multzoa.

- Pinu-zurez egindako eskuz garbitzeko taula, zeinak arropa igurtzi eta marruskatzeko ildaskak dituen; eta xaboiaren eta eskuilaren laguntzaz, zikinkeria ateratzea lortzeko.
- Etxeko xaboi erabilitako olio edo koipearekin, soda kaustikoarekin eta urarekin egiten da. Norberaren higienarako ere erabiltzen zen.
- Errafiazko zurdak dituen zurezko eskuila, zeinarekin garbitzeko taulan orban zailak igurzten diren.





Kizkurgailua

Sutan berotzen den burdinazko guraize gisako tresna. Berotu ondoren, ile xerlo bustiak biribilkatzen dira uhinak, kizkurrak edo kiribilak egiteko.

Orrazteko zapia

Lepoan lotzeko zintak dituen kotoizko oihal-kapa. Orrazterakoan arropa ez zikintzeko babes gisa erabiltzen da. Kontuan izan behar da, lehen, gaur egun baino askoz gutxiagotan garbitzen zutela ilea eta arropa ere ez zuten maiztasunez garbitzen.



Ontzia, brotxa eta xaboia

Bizarra mozteko tresneria:

- Ur epela jartzen zen toskazko ontzi esmaltatua.
 - Bizarrean aplikatzeko xaboi-barra.
 - Bizarra mozteko brotxa, zeinak ondo bustita, aurrez xaboi-tutako bizarraren gainetik pasatzean, bizarra egiteko aparra banatzeko balio zuen.
- Bizarra mozten amaitzeko, bizar-labana edo bizar-xafla pasatzen zen ilea kentzeko.